



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko irailaren 15a

9. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, botere publiko eta administrazio publiko guztiak premiatzen dira Espainiaren kohesioa eta batasuna sendotu ditzaten. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da inolako moratoriarik aplikatu ez dezan Ingelesez Ikasteko Programan. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (3. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, Ingelesez Ikasteko Programaren moratoriari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, errefuxiatuen larrialdi-egoerari buruzkoa. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala andreak egin du (5. or.).
- Galdera, lan eskaintza publikoari buruzkoa. Marisa De Simón Caballero andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean lanpostuak sortzeko hartuko diren neurriei buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (6. or.).

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, botere publiko eta administrazio publiko guztiak premiatzen dira Espainiaren kohesioa eta batasuna sendotu ditzaten.**

### *ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez botere publiko eta administrazio publiko guztiak premiatzen baitira Espainiaren kohesioa eta batasuna sendotu ditzaten.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, zuzenbide estatua eta Espainiaren kohesioa aldezteko honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onets dadin.

Espainia nazio handi bat da, oso historia aberatsa duena historia unibertsalari egindako orotariko ekarpenei dagokienez, berezitasunez nahiz aniztasunez betea, mendez mende eraikia.

Espainia estatu demokratiko, sozial eta zuzenbidekoa da, Konstituzioan oinarritua, eta hala jarraituko du izaten. Gure sendotasun handia datza gizon eta emakume librez, nazioaren lurraldeko edozein tokitan eskubide eta betebeharretan berdinak direnez, osatutako nazio bat izatean. Espainia bere garaiari zor zaion mailan dagoen herrialdea da, nazio moderno bat, garatua, Europan integratua, nazioarteko muntako erakunde guztietan presentzia eta aitzindaritza daukana.

Espainian, berau osatzen duten lurraldeen aniztasuna eta berezitasuna errespetatzen dira, eta errespetu eta aberastasun horretan oinarritzen da bere batasun banaezinaren funtsa, eta,aldi berean, aspaldiko liskarrak gogaidetasun eta bizikidetasun arau bilakatzen jakin duen nazioa da, halako moduan non solidaritatea bihurtu baitu bere bertuterik nagusia.

Espainia herri handi bat da zailtasun ekonomikoak eta sozialak kohesioz gainditzen dakielako. Espainia espainiar guztiena da, non bizi diren ere, eta tradizio guztiena eta sentsibiltate guztiena ere bai.

Hitz batean, honen bidez deklaritzen dugu nazioaren lurraldeko edozein alderditako espainiarrok espainiar izaten jarraitzeko eskubidea dugula, libreak, berdinak, eta Konstituzioak bermatutako oinarritzko eskubide eta betebeharrekin.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak botere publiko eta administrazio publiko guztiak premiatzen ditu:

**1.** Espainiaren kohesioa eta batasuna sendotzera.

**2.** Herritar guztien oinarritzko askatasunak eta eskubideak errespetatzera eta horiek garatzera espainiar guztien arteko bizikidetasuna eta gogaidetasuna bermatuz.

**3.** Gure erakundearen sendotasun demokratikoa balioan jartzera.

**4.** Gure subiranotasun nazionala sendotzera eta aldezttera, ez baita ez zaugarria ez zatikagarria ere.

**5.** Gure zuzenbideko estatua, gure printzipio eta balio konstituzionalak eta gure askatasun sistema aldezttera eta balioan jartzera.

Iruñean, 2015eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da inolako moratoriarik aplikatu ez dezan Ingelesez Ikasteko Programan.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita inolako moratoriarik aplikatu ez dezan Ingelesez Ikasteko Programan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko, inongo moratoriarik ez dadin ezar Ingelesez Ikasteko Programari dagokionez.

Nafarroako hezkuntza sistemak ezaugarri izan ditu, besteak beste, gurasoek eskubidea izatea nahi duten ikastetxea aukeratzeko, bai eta aukera berdintasuna ere, ikasle guztiek ikasi ahal izan dezaten, kontuan hartu gabe haien gaitasuna eta inongo bereizketarik gabe, ez arrazoi ekonomiko-engatik ez beste inolakorengatik.

Ingelesez Ikasteko Programa jada Nafarroako 107 ikastetxetan ezarri eta sustatu da, eta horrek bidea eman du Nafarroako haurrek hizkuntza hori ikas dezaten, familia horien diru-sarrerak edota bizitokia direnak direla ere. Beraz, programa hori lagungarria izan da ekitatean eta bikaintasunean oinarrituriko hezkuntza sendotzen.

Eztabaidaezina da, baita ere, ingelesa ezagutzeak duen balioa ikasleek lan-etorkizun hobeak izan dezaten eta erkidego baten garapen ekonomikorako.

Hori dela eta, ez da ulergarria Nafarroako Gobernu berriak eta hura babesten duten alderdiek iragarri izana aipatu programaren zabalpena eteteko asmoa.

Iragarritako moratoriarekin, halaber, auzitan jartzen da ehunka irakasleek euren burua prestatzen egintza lana eta ahalegina, egiten ari diren birziklatze-lana gorapagarri baita.

Ingelesez Ikasteko Programak ez duela sendotasun nahikorik edota hura aukeratzeko ikasleek ez dutela motibaziorik zabaldu nahi izateak —halakoak justifikatzeko ahalegina egin baita— ez du inongo zentzurik. Nafarroako hezkuntza sistemako ingeles maila baloratzen duten hizkuntza-gaitasunari buruzko azterlan eta txosten guztietan horren kontrakoa esaten da.

Azterlan horien artean, Hizkuntza-gaitasunari buruzko Europako Azterlanean ondokoa esaten da, hitzez hitz: "Nafarroako Foru Komunitateak emaitza erlatibo onak lortzen ditu, Espainiakoak baino hobeak, trebetasun guztietan, eta nazioarteko lehen postuetan dago irakurriaren ulermenari dagokionez".

UPN parlamentu-taldeko kideok uste dugu ez dagoela irizpide teknikorik programa hori geldiaraztea aholkatzen duenik, eta hura geldiarazi nahi izatea irizpide politikoetan bakarrik oinarritzen dela.

Hori dela eta, hau da gure proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez diezaion ezar inongo moratoriarik Ingelesez Ikasteko Programaren hedapenari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio beharrezko baliabideak jar ditzan, programa hori garatzen eta Foru Komunitateko ikastetxe guztietan ezartzen jarraitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere nahia dela halako hezkuntza bat sustatzen jarraitzea non Nafarroako familia guztiei ahalbidetuko baitie haien seme-alabei etorkizun onena eta prestakuntza onena eskaintzea, haien diru-sarrerak eta bizitokia direnak direla ere; eta ingelesa funtsezko elementu bat da horretarako.

Iruñean, 2015eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Ingelesez Ikasteko Programaren moratoriari buruzkoa.***CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Ingelesez Ikasteko Programaren moratoriari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Gimeno

Gurpeguik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariak 2015eko irailaren 17ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Ikasturtea hasi da eta familia askok jakin nahi dute zein izanen den Ingelesez Ikasteko Programaren etorkizuna. Kontseilariak esan zuen behar bada moratoria bat izanen zela programa horren ezarpenean, baina ondoren ematen zuen adierazpen horiek zuzendu egin zituela, eta horrek nahasmendua sortu du hezkuntza-komunitatearen zati handi batean.

Testuinguru horretan, hona gure galdera: Ingelesez Ikasteko Programaren moratoriarik izanen da, bai ala ez?

Iruñean, 2015eko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## Galdera, errefuxiatuen larrialdi-egoerari buruzkoa.

### ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, errefuxiatuen larrialdi-egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

#### GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak heldu den irailaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gaur egun bizi dugun errefuxiatu-krisia ikusirik eta jakinda Gobernuak berak ez duela informazio nahikorik jaso Estatuarengandik, eta kontuan hartuta prentsan argitaratzen ari diren informazio ezberdinak, honako hau jakin nahi dugu:

Errefuxiatuen larrialdi-egoera dela-eta, zein urrats egingen dira, zehazki, eta zer baliabide-zuzkidurarekin? Era berean, berrikusiko al dira papeirik gabeko, etxegabeturiko edota larrialdi-egoeran dauden pertsonen egoerarekin zerikusia duten bestelako politikak?

Iruñean, 2015eko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

## Galdera, lan eskaintza publikoari buruzkoa.

### MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, lan eskaintza publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

#### GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarte-ko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Defizit publikoa zuzentzeko, aurrekontu, zerga eta finantza arloetan presako neurriak onesteko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretuaren bosgarren atalean ezartzen den ordezkatzetasa oso murriztailea da.

Azken legegintzaldian, Nafarroako Gobernuak ez ditu bete ezta erretiroagatiko lanpostu hutsak ere, aipatu arauan Estatuak ezarritako gutxieneko baldintzen mugapean. Horren ondorioz, Nafarroako Administrazio Publikoan aldi baterako langile kopurua oso handia da eta enpleguaren egonkortasun falta oso kezagarria, bai ogibidearen ikuspuntutik bai administrazio publikoen efizientziaren eta eraginkortasunaren ikuspuntutik ere.

Nafarroako Gobernuak ba al du lan eskaintza publikoa egiteko egutegirik osasun arloan, hezkuntzan eta Administrazio Publikoko gainerako arloetan?

Nolako lan eskaintza publikoa deituko du Nafarroako Gobernuak 2016. urterako?

Iruñean, 2015eko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean lanpostuak sortzeko hartuko diren neurriei buruzkoa.**

*CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Foru Komunitatean lanpostuak sortzeko hartuko diren neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eledun Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariak erantzun dezan.

Noiz aurreikusten du zure Gobernuak gure Foru Komunitatean lanpostuak sortzeko helburua duen neurririk onestea?

Iruñean, 2015eko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero



